

Izena _____ Data _____

BERRIKUSI INFORMAZIO HAU.

Migrazioak pertsonen egindako desplazamenduak dira, oro har lana dela-eta. Migrazioek bizilekuz aldatzea ekartzen dute. Migrazioen artean, **emigrazioa** eta **immigrazioa** bereizten dira. **Migrazio-saldo** deritza toki bateko immigratzaileen eta emigratzaileen arteko aldeari.

1 Irakurri definizioak, eta idatzi emigrazioa edo immigrazioa, dagokionaren arabera.

- _____: pertsonak beren bizilekutik ateratzea beste leku batera bizitzera joateko.
- _____: pertsonak leku batera iristea, han bizitzeko.

2 Kalkulatu probintzia hauen migrazio-saldoa. Gero, erantzun.

Komunitatea	Immigratzaileak	Emigratzaileak	Migrazio-saldoa
Euskadi	21.655	8.762	
Nafarroa	8.914	3.092	

- Nolakoa da probintzia horietako migrazio-saldoa: positiboa ala negatiboa? Zergatik?

3 Osatu esaldi hauek.

- _____ mendearen hasieran, espainiarrek _____-ko hainbat herrialdetara jo zuten.
- _____ hamarkadaz geroztik, espainiarren helmuga nagusiak _____-ko herrialdeak izan ziren.
- _____ mendearen erdialdetik aurrera, _____ handia gertatu zen; nekazari askok landa-eremuak utzi eta _____-etara jo zuten.
- xx. mendearen amaieran, _____ ugari iritsi ziren atzeritik Espainiara.

4 Zer eragin positibo ditu emigrazioak? Idatzi eragin positibo bat.
